

ERAIKIN NAGUSIKO KARRATU-KO BEHIN BEHINEKO ITXITUREETAN ESKU HARTZE ARTISTIKO BIDIMENTSIONALAK EGITEKO DEIALDIA

Deialdi honen helburua da zortzi proposamen bidimentsional aukeratzea, Arte Ederren Fakultateko eraikin nagusiko *Karratu*-ko behin behineko itxitureetan esku hartzeak egiteko.

1.- Parte hartzaileak

Deialdia zuzenduta dago 2021/2022 ikasturtean UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatean ofizialki matrikulatuta dauden graduako eta graduondoko ikasleei.

Proposamenak banaka edo taldean aurkez daitezke.

Proposamena talde batek egiten badu, ordezkari bat izendatu beharko da komunikazioa errazteko.

2.- Proposamenen ezaugarriak

Gai askeko esku hartze bidimentsionala izango da eta eraikin nagusiko *Karratu*-ko behin behineko itxitureetan jartzeko planteatu beharko da, kontuan hartuta horien neurriak eta ezaugarri formalak eta, batez ere, funtzionalitatea errespetatu behar dela.

Pertsona edo talde bakoitzak zortzi proposamen aurkeztu ahal izango ditu gehienera, itxitura baterako zein itxitura batzuetarako aldi berean.

[PANELAREN NEURRIAK 280 x 250zm]



3.- Ekoizte baldintzak

Aukeratutako proposamen bakoitzak 200 euro jasoko ditu laguntza gisa, zenbateko horrekin ordaindu beharko dira proposamena gauatzeko materialak ere.

4.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Ondoren aipatzen diren dokumentuak pdf formatuan bidaliko dira posta elektronikoz, helbide honetara: ecultural.bellasartes@ehu.eus

- CV laburra eta datu pertsonalak.
- Portfolio bat, aurretik egindako bost proiektuekin gehienez.
- Esku hartzearen proposamen zehatza DIN A3 formatuan.
- Erabiliko diren materialak.
- Fotomuntaketa edo zirriborroa.
- Materialen gutxi gorabeherako aurrekontua.

5.- Proposamena aurkezteko epea

Proposamena aurkezteko epea **urtarilaren 31a amaituko da.**

Proposamenak epaimahai batek ebaluatuko ditu. Epaimahaiko kideak izango dira fakultateko dekanoa edo hark bere ordezkari izendatuko duen pertsona, Unibertsitate Hedakuntzako dekanordea, Plangintzako eta Ekonomia Gaietako dekanordea, eta ikasleen ordezkari bat.

6.- Proposamenak jartzea

Fakultatearekin adostuko da proposamenak noiz egingo diren, esku hartze bidimentsionalaren motaren arabera.

Onuradunek konpromisoa hartzen dute betetzeko ikastegiak helaraziko dizkien arauak esku hartzea garatzeko. Era berean, jatorrizko proposamena aldatuz gero, aldaketen berri emango dute. Onuradunek ere izango dituzte egindako lanaren jabetza intelektualaren eskubideak.

7.- Oinarriak onartzea

Deialdi honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarri hauek eta epaimahaiak hartzen dituen erabakiak onartzea eta horiekin erabat ados egotea.

Oinarri hauetan jasota ez dauden egoerak antolatzaileek ebatziko dituzte, egokien irizten zaien moduan.

8.- Kontsultak eta zalantzak

Zalantzak argitzeko edo kontsultak egiteko, idatzi helbide hauetara: ecultural.bellasartes@ehu.eus edo arantza.lauzirika@ehu.eus